

## **Funtsezko jarduerak**

Hainbat dira ULEM enpresak egiten dituen funtsezko jarduerak bere negozio-ereduak funtziona dezan.

Lehenik eta behin, ekoizpenari dagokionez, produktuaren berrikuntzak izango dira garrantzitsuak. Izan ere, gure produktuak geroz eta berrikuntza gehiago eduki, orduan eta hobetua izango da produktua eta horrek bezeroen kopurua igotzea egingo du.

Gainera, gure enpresa produktuetan azaltzen diren arazoei beharrezkoak diren konponketak egiteko prest egongo da.

Azkenik, plataforma edo sareko jarduerak eskainiko ditu. Alde batetik publizitatea eta beste alde batetik kanpainak. Publizitatea eginez, bezeroak erakarri egingo genituzke eta gure enpresak geroz eta bezero kantitate handiagoa eduki, orduan eta irabazi gehiago izango ditu. Egindako eta proposatutako kanpainen (DGT eta ponle freno, adibidez) elkar lan eginez, bezeroak mantendu egingo ditugu. Horretaz aparte, jendeari gure enpresak dituen proposamenak erakutsi ahal izango ditugu eta horrela, bezeroak geroz eta gehiago izango dira.

Egingo diren hainbat jarduerak, kanpoko enpresa batzuen esku utziko ditugu. Elektronika enpresak adibidez, gure produktuan, hau da, txalekoetan argiak jarriko dituzte. Gure kanalak zuzenekoak eta zeharkakoak izango direnez, gure produktuak gainerako denda fisiko eta kontzesionarioetan saldu egiten ditugu. Horrela, zeharkako kanalak erabiliko genituzke.